

HONDARRIBIA

D. L. S. S. 122/86 Inp. R. Forasturua / 1.000.000 27.10.86

31. zenbakia

UDAL EUSKARA - KONTSEILUA

60 pta.

1989. maiatz-ekaina

GUADALUPEKO FUERTEA, HONDARRIBIKO HERRIARENA

Orain ehun urte pasata hasi ziren harremanetan Hondarribiko Udalak eta Estatuak Guadalupen fuertea egin behar zutela eta, Lurren salerosketako kalkulua 7.816,4 pezetakoa izan zen. Dirudienez, orduko Korporazioa prest omen zegoen lurra dohainik ere emateko, baldintza batekin: Estatuak fuertea noizpait uzten baldin bazuen, lurra Udalarari bueltatuko zirelakoa. Hala ere, Gobernadore Zibilak galerazi egin zuen akordio hura Udalak herriaren ondasunak inori doainik emateko eskubiderik ez zuela esanez. Udalararenaz gainera beste lur batzuk ere erosi zituzten.

1900 urtean inauguratu zuen fuertea.

Honen berri zehatzagoa jakin nahi duenak Florentino Portuk joan urteko jailetako "Hondarribia"-n (24 zenbaki berezian) aurki ditzake.

Urteak pasa ziren, gerra bat tartean ere bai, eta fuertea balio estratejikoak galdu zuela edo beste edozein arrazoi zela medio, militarrek utzia eta abandonatua zegoen. Hau zela eta, 1967ko apirilaren 26ko Plenoak batzorde bat antolatzea erabaki zuen Udalak lur haiek errekuiperatu asmoz harre-

manei ekiteko. Batzorde hura Pedro Aginagalde Alkateak, Domingo Iza eta Juan Jose Lapitzek osatzen zuten.

Urte hauetako elkarriketa luzeen ondoren lortu du azkenean Udalak lurra eta fuertea bereganatzea. Igazko uztailen gutun bat iritsi zen Defentsa Ministeritzatik eskriturak egin bitartean Udala fuertea jabetu eta arduratzeko baimena emanaz.

Joan den maiatzaren 29an eguerdiko 12'30etan Alfonsito Oronoz Alkatea Donostiako notaria batean Gasteiz eta Burgostik etorritako ordezkariekin elkartu zen eskriturak sinatu eta lehen ordainketaren txekia emateko. Argazkiak jasotzen duen ekitaldi horrek ez zuen ordu laurden bat ere iraun.

Eskrituraren arabera Udalak 30 milioitan erosi ditu 1.740,99 lur-areak eta fuertea Garai hartan saldu zituenak 758,88 area zirelarik 982,11 gehiago irabazi ditu Udalak, orduko 12 miloi kostatu zen fuertearaz gainera.

Korporazioak ez du oraindik erabaki zertarako erabiliko duen fuertea, baina pakezale eta ekologiazale dugunez, herriarentzat jolas eta arnas leku bihurtuko du seguruenik.



GARAI BATEKO IGANDEAK nola bizi zituzten AMONA JEXUXAK eta bere lagunek bildu digu Jexuxmari Mendizabalek erdiko orrialdeetan.

Lourdes Zubeldiak matriarkadoaz ematen digu iritzia.

"Bordari" eta Sanjuanak lotzen ditu Martin Ugaldek.

T. Monzonek bi anaia hondarribiar aipatzen dizkigu hona aldatzen dugun aspaldiko artikulu batean.

San Isidro eguna eta Jaizbelgo gazta lehiaketaren aipamena.

Nekazaritzaren etorkizunaz dihardu bere artikuluan J. Bereauk.

Txipiroiaz mintzo delarik Oteiza eta beste batzuen izenak dakartzkigu Lapitzek.

Txantxikuren abenturen bigarren partea ematen digu Hilario Martinezek.

Azkenean, gure artista eta idazleen berriak.



MATRIARKAZ ETA PATRIARKAK

Zerbait irakurri izan dut euskal herriko matriarkadoaz, baina nere zalantzak ditut idazten dena hala izaten ote den. Nere intziz lehen eta orain, matriarkadoa, andreak soldata etxera ekartzen duenean gertatzen da. Xeguru egon horrelako etxeetan matriarkadoa dela garaiak. Hala gertatzen zen lehengo garaia haletan ere. Beste andre langileen aldean arraietariak askoz ausarta eta askatuagoak ziren, irabazten zuten diruak haspotzen eta harrotzen zituelarik.

Hiru edo lau motatako arraietariak zeuden.

Diruz hobekien agertzen zirenak arraiak kanpora kamioiez bidaltzen zutenak ziren. Begiratu besterik ez zegoen nolako urrezko kate eta belarritakoak eramaten zituzten. Nere ume begiak zozotuak gelditzen ziren pitxi haiek sortzen zituzten dizdizrei begira.

Beste arraietari multzo polita bazen ere: arraiak saltzera Hendaiara joaten zirenak. Batzuetan batelez eta aroirik ez zegoenean, hankutsik, otarreak gerrian. Hauetako batzuek bazekiten frantsesez eta hizkuntz honen axaleko "politesak" kutsaturik bazekiten ere beren etxetara hango ñaña goxuak ekartzen.

Hirugarren arraietari mota Pasaiaiko arraiak saltzen zutenak ditugu. Legatz buruak beren kokote puska ederrekin eta gaizapua, azken hau horren hartua ez zelarik, otarre beteak ezin salduz.

Baziren ere bakan batzuek arrokako arraiak akarrak saltzen zutenak, izen arrarok oihukaturik: sabia, sakaralloa, krabarrok, sarakuntza, eta abar.

Azkenik, egunero tranbian Irungo merkatura arraiak saltzera joaten zirenak geldit-

zen zaizkigu. Besteak beste, Xipriana, Kaxinta, Nikolaxa, Meltxora haundia, Inoxentxi eta Kripina. Azken bi hauek ama-alabak ziren. Arraietari hauek oso maite zituzten jatorrizko Irundarrek, ez bakarrik saltzen zuten arrai frexkoagatik, baita ere oso salerosak zirelako eta beren hizkuntza nahasi eta berexiatatik, hitzetik hortzera ziotelarik: "hermoxa, ven, mira qué presioso...", "zera, maxina..." edo "herkin ariko nak...".

Ez zirela geldi egotekoak gertatutako honen agertzen du garbi.

Tranbian zihozken egunero bezala batkotxa bere Itako edo leku berexian ixerita eta bat-batean Kripina gogoratu zen ahaztu egin zitzaioala etxeko alabari odolikiak eltzean sartzeko esatea. Tranbia oraindik geltokian zegoelarik, sarrera hurbildu zen eta bertatik, ohiura zen bezala, oihuka esan zion esan beharra, aurrez aurre bizi baitzen. Biltarte hartan gizon kanpotar bigotedun begioker bat sartu zen eta hain xuxen Kripinaren betiko lekuan ixerit. Itzuli zenean eta hura ikusi zuenean erabat nardatu zen eta toteladink gabe esan zion:

--Oyes, levante, es mi sitio, gaxo.

Besteak:

--¡Cómo que es su sitio! Yo he pagado mi billete y me sentaré donde me place.

--Oyes, voy más que tú en todos los días ala plaza, eh! Ari digna berni!

Blak katazka bizian ari ziren bitartean bere alaba Inoxentxi amari aurreko mantalitik tiraka behin eta berri: "Ama, ama! Esaiotzu! Zuk bezala du begian fallua!

Eta amak:

--Hori gainera... y en además no tengo ganas de hablar con un begioker comustel!

Ari zak nabaduk! Higuña alen higuña!

Berriro hasierakoari loturik diot ez dagoela begiak asko ireki beharrik nondik eta zerk egiten duen matriarkadoa edo patriarkadoa ikusteko. Diruak, noski, berarekin daramala agintea. Eta ez luke horrela izan behar, bikoteak berarekin zuzentasuna eta maitasuna baitu. Harriokoskor hotz batetik ez bait da lore xamurrik sortuko...

Lourdes Zubeldia

OHARRAK

TXANDAKO BOTIKAK

Maiatzak 29 - Ekainak 4: Iraola

Ekainak 5 - 11: Erauskin

12 - 18: Maiy

19 - 25: Iraola

26 - Uztailak 2: Erauskin

Maiy, Alm. Alonso Kalean - 642191

Iraola, J. Ugarte Kalean - 641027

Erauskin, S. Pedro Kalean - 641018

TXANDAKO OKINDEGIAK

Ekainak 4: Garmendia

11: Martinez

18: Arratibel

25: Garmendia

Arratibel, Zubieta Kalean - 641975

Garmendia, Santiago Kalean - 641136

Martinez, Kale Nagusia - 641212

EUSKARAZKO MEZAK

Egunero arratsaldeko 7etan Portuan

LARUNBATETAN:

Arratsaldeko 6etan Portuan (haurrentzat)
7,30etan Portuan

IGANDEETAN:

Goizeko 8,30etan Betherranean

9etan Amuten

9,30etan Guadalupe

11etan Portuan

HONDARRIBIKO HERRI EUSKALTEGIA UZTAILEKO IKASTAROA

Euskara ikasi edo landu nahi dutenentzat egunero 5 ordutako ikastaldiak izango dira uztaila osoan zehar. Goizeko 8etatik eguerdiko 13.30 arte, ordu erdiko atsedena dute batekin.

Maiak guztiak emango dira, baita Alfabetatze eta EGA ere.

Matrikulatzeko 16 urte beteak behar dira.

HABEren diru laguntzaz.

Matrikula:

Epea: ekainak 12 - ekainak 23.

Udaletxean, Euskara Kontseiluaren bulegoan.

Goizean: 9.00 - 13.00 orduetan.

Telefonoa: 642340.



FERNANDO ARTOLA, SAN JUANAK ETA EUSKARA



Udaberriaren azken aldi honetako berroek bultzata goiz agertu zaizkigu hemengo brisa gozoen bila Euskal Herriko lau punte-tatik.

Eta hain intzagoetik ere bai.

Ez diru jaiak otzari bakoitzaren Gaztelan bizi diren euskaldun batzu ere. Halako batekin egin dut topo atzo espi-goian. Gure artean betiko hitzibidea: Euskal Herria eta euskara nola ikusten dituzten Madriletik. Eta beste gauzen artean esan zidan: "Badakizu, euskara dela eta nork hunkitu ninduen asko Franco denboran? / "Ez"..." "Hemengo Fernando Artola"..."

Eta kontatu zidan nola Franco hil baino bizpahiru urte aurretik entzun zion Donosti-Antiguoko "Itxasmendi" elkartearen bihotza ukitu zion hitzaldi bat. Ez zen beste xehetasunez gogoratzen: "Euskara zer den euskaldunentzat", hori zen nire lagunari zirrara handien egin eta geratu zitzaiona.

Harrez gero hasi omen zen ikastolei laguntzen.

Emaztea eta haur euskaldunak inguratu zegoen asteburuko Korpusen "zubia" dela eta Madriletik etorri zitzaigun laguna, eta labur aritu ginen. Gero, nire bidean, hurrengo Hondarribia-rako buruan San Juanetako gaia nerabilkien, eta Azkueren obra-tik 1) fitxa batzu hartuak nituen eztxeratu nintzenean begiratu nituen:

Batek, Otxandion jasotakoak, herriak ezagutzen duen abesti baten letra du 2): "San Juan bagilean /denpora ederrean/, amalau also tronpetak jotzen/ motrailu baten gainean". Beste batzuk urtaroen aldaketa-ekin, lotzen dute San Juan, honek bezala:

"Lirio lora ederra/ jaio da bagilean/ lora ederrez beterik dago/ Paskua maiztean" 3) Beste bi, ginda-fruituaz, gereziaz, mintzo dira: "San Juan, San Juan goizean/ otsoa gindaren gainean, agure azpian negarrez/ hil ezaiten bildurrez". "San Juan bagilean/ gure urtuan ginda-lorea /San Juanetako el-dua, /San Juanetako baino lenago/ gure usoaak batua" 4) Lapurrak ere aipatzen ditu batek: "Gaur dela, biar dela Donibane, / eta San Juan biaramone /gure solano lapurrik ez, baagoz bere, ere baitzez" 5) Hara, bada, San Juanak udaberri-urte bitarteko alda-keta honekin bere fruituak eta fruituekin la-purrik eta heriotzaren adierazgarri.

Hau zen nire Hondarribiako lantxoaren ahalpuntu.

Gai polita inuditu zitzaidan.

Baina nire lagunak aipatu zidan Fernan-do Artolaren gaia nuen orain bestea tenta-garri.

Bilatut Sandoak bere omenez bi bo-lumenetan egin zuen bilduma, eta hara nola ageri den nire lagunak aipatu zidan hitz-aldia, 1968go San Juan bezperan izan zen emana! 6) Gertatzen dira honelako kointzi-dentziak! Hitzaldia gihartsua da; aipatzen ditu suak eta Azkue bere ere erabiltzen du iturri bezala. Baina batez ere euskara uki-tzen du, nire lagunak gogora bezala, hara hemen bi zaitziko.

Sarrerari:

"Emen, Antiguon, San Juan jaiak ber-piztea dala-ta, ni naiz gaur atabaleko. Tan-bor-jotzalle kaxkarra aukeratu dezute gaur-koan. Ni baño obsegorik baltzake ontarako ez-pairik gabe; batez ere donostiarentza-ko, tanborraren berri bai dezute betidanik koxkeruak; **baña euskara arazoetan, ne-retzat beintzat, delak aginduak dira**, ta aibestez ausarta bezin, lotsagabe, emen nauzute egin beharra betetzen".

Eta, amaizteko, etorkizunaz bere amets bat:

"Egia esan bear degu, orain dela urte batzuek baño askosaz obeto gaude gai on-tan (aldizkariak). Astero-astero jasotzen degu Zeruko-Argia. Danon gustokoa ez dala? Nere amak esaten zuten: "Danon gus-tokoa, ogei eskutukoa". Urrezkoa bai-zan!"... "Antzerkia, derrigorrez zabaldu bearra dago. Izkuntza baten bizi-berria ber-tan dioja."... "Eta diskoak eta gaurko gazte-dia? Kantu, dantza ta abar, gaurko gazte-dia euskerak beretzako nai du".... Eta "bide honetatik jarraitu ezkerro **gero etorriko zaizkigu Tele-ikuskiñaren indarra ta zi-nemaren bide garrantzitsua. Irratzit zer-bait egiten dan bezala, poliki-poliki bes-te bide oriek ere zabalduko dira. Bizi gaitezen itxaropenez."**

Orain sei urte joan zitzaigun Fernando Artola, eta izan zuen 1983an dagoneko ETBren hasieraren berri, baina ez daki oraindik berak maistasunarekin aipatzen duen ikastolak eta euskaltegiek euskadun asko egin duela joan zenez gero; esan nahi nion hau. Ez dira gauza guztiak geuk nahi bezala irten, huts asko egin dugu geroztik, baina hau jakitea nahikoa du gaurko, xehetasun mingarriek gehiegi tristatu ez dezaten.

Europako bidean ere abiatu gara.

Eta poztuko da, hala espero dut nik behintzat.

Martin Ugalde



1) Euskalerriaren Yakintza. 2) IV. 195 or. / 3) 195 or. / 4) 359 eta 196 or. / 5) 327 or. / 6) I., 469 or. "Jakintza taldean, Anti-guoko Itxasmendi"n irakurritako hitzaldia, San Juan jaiak berpiztea dela ta".

Jan hau orain dela berrogei bat urte "Al-derdi" aldizkari abertzalean argitaratu zen "Ta-pa, ta-pa, ta-pa... Txiru-li-ru-li... tituluz Egilea, Otea izengoitiz, Telefono Monzon izan zen. Ortografia gaurkotun argitaratzen dugu.

JESUS ETA ANJEL, BI ANAI HONDARRIBIARRAK

Badituz Ziburun lagun bi. Ez nolanahiko lagunak. Txistulariak dira, anai gazte biok. Txistulari eta zapatar. Zapatak konpon eta txistu jo, txoriak bezain alaiak dira; eleak bezain langile. Horiek...? Mutiko txilik dituzu horiek? Aite Ziburun. Eta jakina da: Gure Herriak ez du, mutil batengatik esateko "ixi-la" baino hitz gorenagorik asmatu.

Ziburu zaharreen dute anai biok lantegia. Gela estu, ilun xamarra baina zapataz beteak beti. Han ibiltzen dira biok, buruz-buru, begiak altza gabe, goizetik gaueraino lanean. Kadira apaletan xerita, soinean amantail urdin, eskuan mailu... ta-pa ta-pa ta-pa ta-pa... eguneroko eginbeharrak bukatu, eta hitz-emanak bete artean. Gauaz, etxera joanda, mailua utzi eta txistu hartu. Biok --buruz buru-- orduan ere-- paperaren aurrean jarrita... txiru-li-ru-li... txiru-li-ru-li...

Kasu, gero! Ez uste Ziburuko zapatar anai bi horien lantegi txiki hartan, nolanahi sartu, ibil eta mintzo zaitezkenik ez horixe! Han ez, gero, harrokerietan hasi. Behar baita, zaldunen etxeetan, zaldunen gisara jardun eta ari.

Ez dira gure lagun biok, sortzez, ziburu-tarrak, Hondarribiko seme jatorrak baizik. Orain hamairu urte dela, ihesi etorri behar izanak horiek ere. Guraso eta arreba gazte

polit batekin igaro zuten muga. Heuren Euskal herri alde hura, su eta odolatan, hilobi azpian utzirik. Ez dakit puska batzuek etxetik atera anai izan ote zituzten. Eskuak hutsik, begiak apal, barneak garbi -- zenbat eta zenbat holakola -- Hondarribitik Zibururatzeko zuten. Ez daude ba, herri euskaldun biok, bata bertzearengandik urrun, eta halare... (Oi Bidasoa! Ez zekiat gure etsai edo gure laguna haizen...!)

Ziburun atzeman zuen, beraz, Hondarribiar sendi horrek ere, aterpea. Sukalde txiki baten inguru, bizpahiru lo-toki. Elur eta eguzki txukundua zirudien bitzita. Bazuten, sukalde ondoko baratze txiki hartan ere, zenbait porru eta lore. Zeru! Diruz estu, mailtasunez aberats, handik ikusi zituzten hodei astun ilun haiek Euskal herri gainetik drumoi eta tximistaka igarotzen. Beltzenak urrundu zirela, irten ziren leihora poliki-poliki erdiriki zuten atea ere ta, ixil ixilik, kalera irteten hasi. Aixa egin zituzten lagunak. Laster etxera auzoko zapataz bete ere. Inon inolako festa baziren, txistulariak behar eta, deitzen zituzten. Haiek herriari lagun eta herriak semetatz hartu: laster biok bat egin ere. Ziburuko eliza-kantaria hasiak baitzitzaizkien mintzatzen. Eta piztu zen, hasi zen -- Hondarribiaren Ziburuko sukalde hura -- arnasa hartzen. Egunez, mailuaren bihozka-

dak entzuten ziren... ta-pa... ta-pa... ta-pa... ta-pa... gauaz txistuarekin... txiru-li-ru-li-bi-ru-li-ru-li... Gaur beste askok bezala, ez dakite horiek Ziburun edo Hondarribikoak ote diren. Euskal herriaren semeak direla jakitez, ez al dute aski?

Ameriketarik itzuli berriak ginela ezagutu nituen txistulari anai biok: "Gudarien Eginak" liburua, atera nahiz nenbilela. Norberak muxika-eskolarik izan ez eta, norbait jaso erazi behar nik --ez Gayarrinen abotsaz, ene Jaingo maitea! -- kantatzen nituen abesti haiek. Halaxe jo nuen Ziburuko txistularien-gana. Ez zaizkit aixa, etxe hartan egindako egonaldiak ahanitziko. Nere liburuko poemak? Zer balio zuten haiek...! Beste hura bai poema, beste hura! Sukalde hartakoa...! Poema goitar, herriko eta bizia. Herriaren, Herri hehearen, Herri apal eta ixilaren, Herri irakaslearen eguneroko poema.

Ikustekoa zen: sartzen nintzen, sukalde txukun hartan, eguerdi inguru. Udaberriz baratzerako atea zabalik, txoriak ibiltzen ziren kantari ondoko zuhaitzetan. Alboko gela batean, txistularien ama ohean eri, haren arnasa liarriak entzuten genituela "Ez ote dugu unatuko?" galdetzen nien semei. Eta haiek espantu gabe erantzuten: "Bai zera! Egin beharrak eginak omen ditu eta bizi izana den bezain alai dago gaur gure ama, hiltzeko ere". Haiek mailuak utzi, kadiratik altxa eta asten genituen gure lanak: Neu kantari (!), anai gazteena txistuarekin, zaharrena berriz --Bethoven barberari aditzen balego bezalaxe-- betaurrekoak ipinita, neri abesten entzunak hark paperarean ematen zituela. Arreba gazte polit hura, artean, har ibiltzen zitzaigun, legatza pjiitu-edo, elur antzeko zapiaren gain mahaikoak antolatzen. Zenbat aldez honela ari ginela, halako batean... atea zabaldu eta arrantzele emaztekin bat sukaldean ager, semearen zapata zahar urratuak eskutik zintzilik zekartzala. Hark "prexatua naiz ba" erran ezkerre, uzten genituen gure lan guzikiak jartzen ziren atzera anai biok heuren kadiratan hartzen zituzten mailuak eta ikustekoa zen nola ixan batean konpontzen zituzten, haur oker hark harri-joka urratutako zapatak. Bazen sukalde hartan, beti, sartu-irtena: Batek bere oinetakoak utzi, besteak senarrarenak jaso, ezkontza baterako txistularien eske, haun erretorea- ren izenean elizarako "galdezka", dantza pestaren bat gertatzen ari Donibaneakoak eta, Ziburuko txistularien laguntza behar... Etxe hartan ez zen halare ez zalapartarik, ez oihurik, ez haserrenik aditzen. Hango sartu-irten, joan-etorri, jende-hartze, agur-egi-



Ziburu (B.E.L.)

te, eta hitz guziak, Aita Donostiren minueto horietako baten neurri eta doinuaz eraginak baitzidudien.

Sartu zen etxe hartan ere zorigaitza. Ziburuko hilerrian daude gaur lo, txistularien aita eta ama izanek ere Urruña...! Ziburua...! Aitsu...! Bidarte...! Lapurdiko hilerri gehienetan baditugu, dagoeneko, hamaika hezur mailte ehortziak.

Zarata askorik gabe hila omen Ziburuko txistularien ama izana. Bake eta ixilaren ederra baino gorenagorik bai ote? Gure Herriko beste ematekien maitasunak zituen hark ere etxeko sua, jostorratza eta eleizabidea. Baita bertze bi ere: lore eta txoriak. Horietan ez, beste gehienan antzeko. Egia esan, baratzeko loreak baino maitago baltitu gure herrian... porru eta patatak, esate baterako. Txoriak ere, zuhaitzetan baino... guk zartainean nahiago. Hark ez ba: semeek, haurtzaroan, ama kexarazi nahiz, harengana joan eta "Ama --esaten omen zitoten-- txori kabia atzemaña dugu alzo, arbola mutur batean. Eskolatik itenda, txorieta goaz gaur". Orduantxe haserretzen omen zitzaizen ama.

Eta hara gertatu izana: emazteki hura azken amasetan zegoelarik, sartu zitzaizen leihotik txori bat; igaro zuen sukaldea hegazkia eta, gela barnea atzemanik, erianen ohe geinean kokatu. Handik hasi zen kantari. Txistularien amak azken amasa emaitzen, airatu zen txoria eta, ohe inguruan zeuden denak harrituta utzirik, atzera leihotik ihas egin...

Ziburuko alaba polit bana hartua dute gaur, Hondarribia umezurtz anal biok. Egun berean ezkondu ziren. Arrantzale zahar eta eskoletako haur, herri osoa joan zitzaizen Ziburuko elizatik iriten ikusterat. Dantzarien erditik igaro ziren. Esan beharrik ez: apal bezain zaldun, "minueto"aren antzera era-

man zituzten egun hartakoak ere.

Ez dituzte geroztik ez mailuak ez txistuak bazterrean utzi. Herrikoen zapatak konponitzen, heldu ezinik ibiltzen dira orain ere anal biak. Pestarik ez duzue hemen inguruetan, Ziburuko txistularien laguntzarik gabe.

Donibane "Euskera-Eguna" z, ere, horiek eratu zen, eliza aintzina Endore eta Erretore jauneri herri honetako gazteek eskaintako aurrezku dotore hura.

Eta hara: Bertze Ziburuko umezurtz bati egin zion Donibane aurrezkuari egun hartan dantza. Ez sortze Ziburutarra, neska begibeltz lirain hura ere, Tolosako alaba baizik. Tolosako zaldun-andere batzuen alaba. Eskuak hutsik--hutsik bezain garbil-- Ziburur atzerpe bila etori behar izan, orain hamairu urte dela, haiek ere. Ziburuko hilerrian daude, Hondarribiko zapatarien gurasoentzat egindako zulo ondoan. Jainkoak

emandako sorterrria maitatzeagatik, atera zituzten etxetik laurok. Laurok eta bertze zenbait milaka ere. Bidasoari eskerrak --Bidasoa etsai, Bidasoa lagun!-- gure Itsaso eta mendien artean ehortziak gaur, haien hezurrak ere.

Donibanen egindako aurrezkuari, goitik begira egonak badira, ez zuten guraso haiek atsegin makala hartuko, han zegoen arrantzale bati haien alabagatik entzuteak: "Horixe aterako nuke nik ere, nihor ateratzekoan, plaza erdirat. Herriaren mixeria eta eritsunak nola goxatuko, baitabiltzate, gau eta egun, andere gazte horren eskuak".

Barikatu, txistulari jaun eta andere gazte, gaur zuek hemen aipatu izatea. Ziburuko pestak dira egun-eta, pentsa gabe bururat etorriak zaizkit nere Ziburuko lagunak!

Otea-k egina



DEMOGRAFIA

JAIOTZAK

APIRILA

- 20ean: OIER Arratibel Kortaberria
Gurasok: Fernando eta M.^a Eugenia.
27an: BENAT Ortiz Otazabal
Gurasok: Francisco Javier eta M.^a Carmen.

MAIATZA

- 9an: ODEI Berrondo Elizagire
Gurasok: Gabriel eta Gemma.
15ean: ANDER Rosillo Iñiz
Gurasok: Jose Ramon eta M.^a Mercedes.
16an: JULEN Tel Aierza
Gurasok: Francisco eta Gemma.
19an: ZOHARTZE Taberna Erkizia
Gurasok: Jose Miguel eta Juana.
25ean: LEIRE Martiarena Gonzalez
Gurasok: Jose Antonio eta M.^a Josefa.

EZKONTZAK

MARTXOA

- 4ean: Braulio Aitor Alza Kanpandegi,
Hondarribikoa eta M.^a Begoña Muguiza Errazkin, Hondarribikoa.
6ean: Juan Alfonso Dieguez Millan, Erandiokoa eta M.^a Josefa Amunarriz Yarz, Hondarribikoa.

APIRILA

- 22an: Joseba Iñaki Zabala Bengoetxea, Irungoa eta M.^a Inmaculada Mitxelena Etxebeste, Hondarribikoa.
18an: Jose Ramon Agirre Iñido, Hondarribikoa eta M.^a Aranzazu Garaialde Manterola, Hondarribikoa.

MAIATZA

- 5ean: Juan Jesus Tolosa Irigoin, Hondarribikoa eta M.^a Jesus Bolafios Reyero, Barakaldokoa.
13an: Juan Gaztelumendi Elizegi, Oñazungoa eta M.^a Victoria Larrañe Kanpandegi, Hondarribikoa.
13an: Angel M.^a Zugarramurdi Aizpuru, Goizuetakoa eta Idoia Oñazungoa Agesta, Hondarribikoa.
20ean: Sebastian Orozco Etxebarria, Hondarribikoa eta Lide Mitxelena Rekalde, Donostiakoa.

- 20ean: Jabier Amunarriz Berges, Irungoa eta Ana M.^a Gezala Alcaride, Hondarribikoa.

HERIOTZAK

APIRILA

- 25ean: Angel Gurtubai Rodrigo, 64 urtekoa Zubietako Kales.

MAIATZA

- 2an: Laura Lekuona Lekuona
San Pedro Kalea 57
5ean: Jose Julian Iñiz Iñido, 73 urtekoa Francisca Enea.
7an: Jose Miguel Imaz Goikoebea
8an: Emilia Lucio Gil
Kale Nagusia.
16an: Vicente Garcia Venci
16an: Celestina Otazabal Camino
Santiago Kalea.
23an: Eugenio Elizagire Lekuona, 60 urtekoa. Lur-Gorri.
25ean: Juana Jauregi Dorronsoro Santa Engracia.
28an: Narcisa Sagarazu Miranda Eguzki-Lore.

EKAINA

- 4ean: Lucio Enparan Perez
Arrantzale Auzoa.

IGANDE BAT

Gizaldi hasiyezan bapote eta bruxa
 ibilki ziren haiek ezin errehexa.
 Pasadizo txoil onik badidazu lura
 eskaxa jarri diet azpian mantuxa...
 Mersi denakengatik amona Jexuxa!

Ez omen zen garai hartan gaurko konturik, zera! Asteak zazpi egun noski gureztat bezala, baina atzamateko zegoen pasiarako jai arratsaldeko neska meke gazteentzat. Lana auzoan, beharra etxean, sosak bidean beti. Oraingorik ikusteko zeudenez, inbiriarik ezean, umorea soberan. Inozentziak poza omen dakar, ekarri ere, pentamenduek eta afanek atsekabea bezala.



Inozentziaren poza (edo pozaren inozentzia...), batek ez bait daki) beudekin erakartu zirenean arratsalde osoa jai-jolas giroan iragotzeko, beste amets eta antisia auzunik gabe: heldu den eran heldu dela, irago! Ondo, halere! Laurak gona luez txorkatleraino, alpagatuta oinetan, ile bildu-bilduak kaskarrean eta kabitu ezineko poz zera hori begietatik gainezka. Jexuxa, alaiaren urduri: Madalena, presaka antean; Bittori, begiluze eta... Maritxu, berritsu. Hankautsik ere bazen han jendea inguruan, halanola 19 sos taka-taka ordaindutako plaiara zuriidunik, bat edo beste. Gure lau neskek tartekoak ziren, ordea: ez kukurruku haundikoa egitekoak, ez Antzarango loieren parekoak ere.

– Arizan, ondo tentte faki dun bainura gure "Birtudes".

– Etzunen, ba, gaur euli haundiak zula-tu beldurrik!

– Duena erakustearren, izan ere, zer etzikenen mar! lanbasa horrek egingo?

– Kabitu ere ez dun-ta egiten best xentimetrotako trapu horieketan...

Patxiukeneko horretan, tenteka jarritako bottien atzean aldatu ondoren bainatu ohi zen jendea hondarzan bertan hainbe. Sarri-sarri baita Bittori-ta ere, baina ez gaudeneko honetan. Begi eta mihi zorrotz egonketu ziren laurak zutik, borobil erdi bat osaluz; zehar begira honi, bizkar gainetik beste hari, zurru-murru, iji eta aja, majo datzatu zituzten bazterrak, harik eta eliznaguisarantz abiatu ziren aite airoso. Laurak gainean eta... beraz, ba!

San Pedro kaleko mutur batean zai zuten inazio "Txintxo", Madalenaren gizon-gaia, serbioan zegoena Iruen. Hiltz bi baino gehiago gabe, endana berean jo zu-



ten bostek elkarrekin maldan goitti, inguruan apenas inor ez eta azkenak zirenaren lotsetan. Igandeko bezperatar orduz gero iristea, izan ere, ez zen itxurakoa. Jendeek egingo zieten berriro ere mar-mar...

Elizara salto batean sartu, beraz, eta Inazio berak bakarrik jo behar izan zuen aurrera, aulkil luezetara, gizaseme artera alegia; lau neskek, ostera, atzera joan ziren zur eta zumezko aulkitxo banatara, argizari eta argizaihol eta kanderila piztuen tartera.

– Grazierak Don emilio sakristiko lanean luzatu denik, bestela...

– Etzegon ba atso mingainluze gutxi jakinazko dionik, zera...!

– Emango niekenen gustora asko diburtaz burutik behetti palaku ederra!

– Hago ixilik, maldixiantia hori!

Bezperatako patrifilikoak ez ditugu hemen harrotuko aro moderno guztion bezperakoak ezagutu batetik, eta lau neskon arratsa ziregutera ematekotan gehiako luzatuko ginatekeelako, bestetik, hangoxe abemari eta panejirikoetan. Gauza da apai-

zak ere presa zuela nonbait norabaiterako eta lau t'erditan kale nagusian behetti genituela neskek Inazioaren konpainian. Inazio kosatelearen egon beharra zuen derriol ilun-bixtarako eta, atxakia horrekin-edo, Madalena besotik oratu eta alameda parean tranbia hartzera eraman zuen, lehentxeago. Don Emiliok izan bezala orain Inazio berak presa bailuan, batek daki zertarako.

– Kroka beharrik ez duk, hik, moteil! Hori duk segarrera...

– Ez, gero, ahantzi Elgorriagako pastelak, e Madalena!?

– Bi sos bakarra emakittuta-eta bueltako tranbia hartzeko!

– Zera...! Dirua bôzan brankara! Heteroinez, hara bestia...!

Hirurak alamedako horretan zeudelarik, iadanik Madalena eta gizonairik gabe, sesio haundirik gabeko gatazkan hasi ziren beuden artean: Maritxu, euskaldun fededuna bezala, Margarita Aginagaldaren reunitura joan beharko zutela etsi-etsian (gaur egun Biteri dagoeneko horretara, agidenez, eskalera haunditan goitti, galeria bikain batera), kristau bertuteak komentatzen, gazte pekatarien ohitura narratsak arbulatu eta salatzen. Ezet zioen Bittori: seguruxegotan ere, eguneroko neska lanetan "Santa Monja"rik santuenaren bertute guztiak pratikan jartzen omen zituzten nahita nahi-ze, bai?, eta Igandea begiak goxatuko jarri omen zen Jaunak, ber arrai gero! Frantziadetiko mutil bapo-legunak ikusi eta... Mutlak gora, reunitura behera... azkenean Jexuxak jo zuen auziaren hiltzean: "Bostak laister: zergatik ez ziner...?" Jakina, bai! Akabo hango liiskarrak.

Zorioneko "zine" hori murru azpi bateko ainubea zegoen, gaur harritzko artzak zutik diraueneko hartan, hain xuxen. Soto ilun modukoa zen, garaje antzekoa nahi bado; alde batetik sartuala jendea ezker-eskui esertzen zen elizan bezalatsu; bonbilla bakarrek argi dantzari mendrea erregelatzen zuen goiko paretaren erdilik; aurrez-aurreko paretan mairidre zuri izandutik alde aldik alde zabal; eta atzeparatean, oholztadura batean gainean, proiektagailua (huraxe ba "gailua"), eskuz eragin beharrekua gelditu gabe, argiak italtzean mairidrean ezer mugitzen ikusiko bazen. Bi sos bakoitzaren sarrera; kakauxak nahiz gaztainak jatea, libre; libre, ogia oliotan bustia zupatzeko; libre, hitzegitea, karaxi eta txistutak... Zeharo mutuak ziren, ziren, izan ere, mairidreko gizon-emakume zalapartariak, ez hala proiektagailua bera, alafede! Haren kirrikarranka soinuak! Halabaina, batzutan okerraren bat sortu eta deus ez ikusten; a ze trikilu saltza orduan: batzuek farrez saltoka, birao soinu batean besteak oholztadurako gizonari mehatzuka... Denak "fallo! fallo! fallo..." eginez,

Nolabait batu hura ere (trena maindiretik irten gabe, por zierito!) eta, selirak alde-
ra edo, tuntu kale nagusia. Bazen han
heritar franko, eta Hendaia mutiko zin-
dori, salto eta dantz; baina gure hiru nes-
kek, behetik gora tentuan joan eta joan, ez
bide zuten inor gustokorik topatu. Hala,
Hama Plaza irago eta kaletik portura abia-
tu ziren.

– Ez dinat nik dantzarako gogorik...
– Nire irudiko, kokotz zuri, lepo tente
eta ipurtestu gehiegi gaur hor.

– Ez zekinat, ba... Martxa honetan, ez-
kontzera iristen bagaitun, txinpunak eta lu-
minaioak sutuko dizkine herrian; ikusiko
dun...

San Pedro kalean, Axarinek hartan,
sagardotegia. Jendea alpagata txuriko,
barrenean bezala ingurumartan. Barren-
dikan kantu burrundara entzuten ahal zen zu-
mumuru betibatekoan nahasia. Errekar-
en bestekaldeko aiek, Santiagotik, gaztaina
saltzaile mihar luxe bat, besoan jaski bat
zuela.

"Erre berriak, Gornustik ekarriak!
Bi xoxean gaztainak
beltzak eta bikainak,"
ez dire hobiak bizkainak!"

Erderaz, berriz, hurrena:

"Castañas calientes, castañas frías!
No hay en el mundo castaña como la
mía.

Ay, ay, ay, como la mía!

Guzti honetatik aparte gabe, bertso
kantari besamotz bat. Inoiz isiltzen zen eta
zamarrako patrika zabaletik paperen bat
ateratzen zuen entzule edo zaleren bati sal-
du asmoz. Bi sosen bertso papera. Gina,
trabía, gaztainak, kakauexak, xoko ru-
soak... dena zegoen bi sosen trukean.
Eta... gastatu ahal izana ditza, zera!

Bati eta besteari begira, joan egin zaiz-
kigu bistatik hiru neskame gazteak... Ez,
hala ere! Hara non dihoazten, ateri gabeko
blagan erreka batetik barrena. Ez zale es-
kutan bertso paperik somatzen, bai ordea
gastaina moltzokara ederra, zeinetatik hiru-
rak an bait diren harrapazka bat hartu, zu-
ritu eta jan... bat hartu, zuritu eta jan. Zo-
rioneko bi sosek, izan ere, denetarako
emanagatik ez, haatik, denerako; aukera
egin behar derior! Ez zen, ez, beste ere-
mediorik, eta mirariak elizan, aspaldi zaha-
rrean ganiñera.

– Hau dun atarramendua: hiruron ar-
tean bi xox sikera bagenu "ñañu"nean ka-
kauexak erosteko!

– Edo kanta sartzeko sos bana bage-
nu bedere...

– Hauetxek ditun mixeraren adarrak;
baina ez zigun inork kina joko, ez!

Errekatik itenala, Santiago. Ezkerreko
atari batean, kanta zaharreko mutxurdinen
gisara, mahai usteko euskarri xahar baten



inguru, "kinan", karta jokoa ari zen hama-
bi-hamairu lagun. Sagardotegiko hotzberoa
ez bazen, huraxe zen igande arratsa bota-
txeko ohiturarik ohituena nola. Hondarri-
bian hala auzo herrian ere: koadrilan, gazte
nahiz zaharagoak elkar egin eta kinan edo
trukean ariko ziren diru pixarrak jokatuz,
batzuren poximi eta gainerakoan erremine-
rako; pozaren beti ere horratik, bestela ez
sartzea zeukaten noski!

Jexuxak, Bittorik eta Marituxak, inoiz
mahaikide jartzen zale baziren ere, ez zuten
kale batetik besterakoa kinarako egin. Ba-
zen Madalena kale barrenean xakota
zaharkitu bat, Santiagoko azken muturreko
zabalduan bertan. Huraxe zuten jolas leku-
rik maitea neska-mutik gazteek. Oraindik
ere ondo gogoan omen dute, alajaina!

– "Poto-potoka" edo "buleka" aritzeko
gutxixko izango gaitun -Maritux.

– Aukeran "ttankoka" nahiago dinat,
ba, neska -Jexuxak.

– Aldeizia hortikan! "Kataplanka" beze-
lakorik etzegon...! -Bittorik

Ez zen joku faltarik. Hala, behintzat, ka-
xotara hurbildu bezain pronto portuar gazte
dezentze inguratu zitzaizkine eta ez zuten
denbora askorik galdu "zertan jolastu" koa-
ren eztabaidan: "Miki kataplanka egingo
diagu, bai?", eta gero gerokoak...

Hango bazter ageri eta ilunek jakingo
dute joku haien berri eta ez gara gu gogan-
beharka ezer asmatzen hasiko. Jainkoak
goarda! Dena den, txoko hura behinepehin
ondo merezia eta irabazia izango zuten. La-
nak atsedan aisia zor izaki, telebistatik
ezean, kalegorrian patrika huts, elizakoak
egindakoaren kontzientzia lasaia, eta, ba-
tipat, pozaren inozentzia, portuko zoko
hartan neska-mutik gazteok ez gozatzeko-
tan, jokuan nahiz jolasean, nork gozatu

behar du noiz eta non...?

"Jolasean" esan dut... Oraindik orain
erdi zinka-edo hitz hori bera aipatu dioda-
nean Jexuxari, hara zer jaurti didan hitzetik
hortzera: "jolasean...? jolasean esan duk?
Jakin egin behar guk orduan." Atera kon-
tuak... Orain "hamalau" garelakoan...

Han botako zituzten adiskidekin orduak
egunargia mendealera gorde bitarte. Han
agurtuko zuten elkar, noiz pozetan noiz ga-
tazkan, jokuan emanaren arabera, nork-
bere etxera bidea harteko.

– Madalena itzuli ote dun?
– Betarik izan din maripurtzil horrek
pastel goxoak aitzeko. Bejondeiola!

– Ze pastel eta ze pastel ondo, gero!
Heldu den asteak ere bi ostiral guretzako...
Gabon.

Bederatzietan hortxe, etxean ordu
muga. Beranduago erretiratzeko zenak fama
txar kanpoan eta istilu gorriak barruan. Ha-
labaina, zer txarrik espero zezakeen ino-
zentziaren pozetan orduko bintxo erreti-
ratzen zenak? Gabon epel bat etxe zulo
batetik eta harraskara bidea zuten, baez-
padan, ohituraren ohituraz. Eta lotarakoan,
geroaren amets dardariak Jexuxak; Bittori-
k, igandeak emanaren poxaren ihesa; Mari-
rituxak, dena zuten ez eginareen kezka; Ma-
dalenak..., auskalo! Patu eta halabeharra
ilargitiki kurika begira, isil-isil.

Igande bat. Ez omen zen garai hartan
gaurko konturik, baita zera ere...!



Jesumari Mendizabal
1989ko maiatza

TXANTXIKU'N ABENTURAK (II)

Dakizuen bezala, sei l'erdietan barkiloz-ko oihala zabaldu hego haizeari eta ipar aldera jo zuen bi begiak erre-erre jarrita. Handik pixkatera soinu haundi bat sumatu zuen, trumoi bezala, baina ez zen trumoiak zerua garbi bait zagon. Aurrera begiratuaz horma zuri bat ikusten zuen. Zer ote da Atsedan txiki bat egitea erabaki zuen zuritzara hura zer zen jakin arte.

"Txantxiku!" deitu zion norbaitek, eta han zegoen bere ondoan berak libratutako izukia. Hala esan zion:

—Baia eta itsasoa elkartzan diren lekua da hori, barra du izena. Hor olatu haundiak lehortzen dira eta oso zaila da ontzi txiki batekin igarotzea, baina nik deituko diot nere lagun marloari eta hark eramango zaitu barraz kanpora.

Etorri zen marloi zuri bat eta Txantxikuren ontzia mokuarekin hartuaz aidean eraman zuen olatuetatik urrutu eta poliki-poliki ur gainean laja. Txinbingoma puska bat eman zion marloari eta azukre pixkat izukiarri laguntza haundi hura eskertzeko. Horrela iritsi zen gure Txantxiku itsasora.

Hartu zuen titiarekin ur pixkat edateko eta, "arraia! ere gusterako gaziegi. Onean

azukre pixkat bota eta onduko da" pentsatu zuen.

Aurrera jarraitu zuen hego haizeak bultzatuta eta lo hartu zuen berehalaxe. Handik aguro esnatu zen oinak bustiak zituelako eta konturatu zen ura sartzen zela zulo batetik. Begiratu zuen beheara eta marrajo alu bat zagon han bere txokolatezko ontzia jaten.

"Orain ikusiko duk zer den ona!"

Eta zizta sartu zion bizkarretik ontzi guztia jan baino lehenago. Marrajoak, sastako hura bere bizkarrean sumatu zuenean, aguro alde egin zuen handik.

Nola itxi zuloa ura sartu ez zedin?

Txinbingoma edo txikle puska bat hartu eta guri-guri eginda harekin itxi zuen zulo hura ontzia murgildu baino lehenago.

"Aurrera Txantxiku! Bidaia hau bukatu behar ditz ahal den modura" pentsatu zuen.

Zortizetan afaria prestatu zuen: bi inxaur, txepetxaren arrautze bat egosita eta kamomilo lore bat olio pixkatekin. Nahikua!

Gau guztian ez zuen lorik egin bakarrik aurkitu zelako bere aita eta amarik gabe.

Hurrengo goizean urrutira ugarte bat

ikusten zuen, baina haizeirik ez zagon bere ontzia hara bultzatzeko. Zer egin? Hartu zuen karramaruak emandako karakola eta indar guztia ere jo zuen ea zer gertaltzen zen eta... EUP!

—Txantxiku, nere laguntza behar al duk? —galdetu zion izurde batek.

—Bai. Ugarte hartara itxsi nahi dut atsedean on bat hartzeko, oso nekatur nago eta.

Orduan izurdeak bere hortzekin hartu zuen ontzia eta Txantxiku bizkar gainean jarri zen. Hala, hondartza txuri batera joan ziren.

Mila esker, izurde jauna. Tori goxo bat zuretzat eta agur.

Bere aitak egindako itsas ontzia arkaiz bati lotu zuenean han bertan lo hartu zuen gixajoak.

Aitxa, Txantxiku, ikastolara joateko!

Esnatu zen eta han zagon bere ama beti bezala bere gelan farrez...

Amets ederra egin düt, ama maitea!

Han bukatu ziren Txantxikuren abenturak etxetik atera gabe.

Hilario Martinez

ARRANTZA

ANTXOA

Ekinean sartzen ari garenean, esan dezakegu orain arteko arrantzak ez direla hain bezain onak izan eta kontutan izanik maiatzaren izaten dela antxoa ekartzeko hila-beterik onena, kostera honek ere, azken urtetakoan antzera ez du itxura onik.

Marinelek ditenez, garai batean hamar minutuko bidea egin ezkerre nahiko antxo ekartzan zen. Behin baino gehiagotan gertatu omen zen saltzeko edo kontserba etxeetako gehiagi eta baserriarrei eskeintzea, hauek arta-lurretan ongarri bezala zabal zezaten.

Aspaldiko kontuak hauek. Aurtengo kostera aurrera doa eta bi hilabete hauetako emaitzak aipatzerakoan, 15 egunetan egindako arrantzak ditugu soilik.

Kopuruari dagokionez, alde handiak izan dira egun batzuetatik besteetara gau batez 100.000 kilo sartu ziren bitartean, hurrengoan 10.000 besterik ez bait zuten ekarri.

Zerbitat salbata bada ez da izan ikusten denez arrantza handiak izan direlako, prezioetatik baizik.

Hauetxek izan dira salneurriak:

Kiloko 28, 29 eta 30 alekoentzat, 680 pta.

Kiloko 34, 35, 36 alekoentzat, 375/500 pta.

Kiloko 37, 38, 42 alekoentzat, 290/350 pta.

LEGAZKETARIAK

Arrantza onak izan dituzte azken bolada honetan eta prezioak, noski, jaitsi egin dira.

Legatza	Kiloko 1.200 Pta.
Mediana	Kiloko 660 Pta.
Peskadilla	Kiloko 450 Pta.

Maiatzaren 17an bilera kofradian

Eguerdian bildu ziren Kofradian Sagarazu eta Olazola jaunak, J. Ignacio Espel eta J. Antonio Golekoetxea arrantzarako kontseilari eta kontseilari ordearakin.

Elkarriketarako gaiak hauek izan zituzten: sare pelagikoak, aurtengo kostetarako, nazioarteko erlazioak eta kaian, frantsesen eraginez gelditunik dauden lanak berriro hasteko eman beharko diren pausoak. Diru-dienez, gai honen azken erabakia Eu-

ropako Ekonomi Elkartearen esku dago.

Espel jaunak ongi ezagutzen ditu hemengo arazoa eta harreman onak ditu Kofradiako partaideekin, azkeneko urtetan Santiago eguneko "kutxa entregari" ohorezko gonbidatua izan delarik.

Laster beste bilera bat izango dute Kantauriko kofradiak eta frantses agintariak bertan espero omen dira.

Baionako portua itxia

Duela egun guxti, sare pelagikoak erabiltzen dituzten Endaia eta Donibane Lohitzungo 40 arrantzuntzi itxi egin zuten Baionako portua. Lizenzia gehiago eskatzen dute. Diotenez, 40 lizenzia besterik ez dute hemengo uretan arrantza egiteko eta hemengoak 160, frantses uretan ibiltzeko. Gure uestez gertatzen dena zera da, sare famatu horiek beren urak arrainik gabe laja dituztela eta orain ez dute antxoarik atunetara joateko ere. Aberasteko asmotan zebiltzala zuzien eta orain akabo, orain protesta garaia heldu zaie. Esaera zaharrak diona gertatu da "Gaurko ogia, biharko gosea".

"HITZETZ HITZ" LEHIAKETA

Zazpigarren deialdian hiru erantzule izan ditugu, ohizkoak: Alaitz Agirre, Iraitz Arruabarrena eta Itziar Mendizabal. Bakoitzak bost puntu bereganatu ditu honelako erantzunak bidali dizkigutelarik:

1) TXANBRA

Emakume brusa, blusa, mota bat.

2) MU

Muga, tenore, garai, ordu.

"Hau da etortzeko musa?", "Mu ederrian heldu yaiz, hemendik onenak emanak ttun, ba".

3) UERA

a) Itsasoa ur axalean, zernahik (arruak, arrainak salto egitean, edo txalupa batek, adibidez) uzten duen apar arrasto edo il-doa.

b) Uretako olio, gasoil edo petrolio mantxa.

c) Arropetan, zikin mota baten inguruan agertzen den arrastoa.

d) Itsasoa bare-bare dagoenean, kalma txuri-txuria, kalma txitxa dagoenean.

4) SUJENTA

Marea beheiti doanean beheraka tiratzen duen korrontea.

"Ura sujenta bizi-bizian zian".

5) ARGURIAN HASI

Blagan, hizketan hasi.

"Horiyek biyek argurian ari ttun; ze kontu ote ttuztel".

Hil honetan, agindu bezala, bigarren aldiko sarak ematea dagokigu. Eta puntuen arabera sailkapen hau gelditzen da:

1. ALAITZ AGIRRE, 20 puntu, 7.000 pezeta.

2. LIERNI MENDIZABAL, 19 puntu, 6.500 pezeta.

3. IRAITZ ARRUABARRENA, 18 puntu, 6.000 pezeta.

4. MARGA ARISTIZABAL, 4 puntu, 1.500 pezeta.

Zorionak lauei eta mila esker Hondarribian daukagun altxorrik zahar eta preziatue-netakoa, euskara, hobeki ezagutzen lagundu digutela Alaitz Agirrek erantzun zuzenenak ez-ezik, adibide gehienak eta osoenak ere bidali dizkigu. Ongi merezia du, beraz, lehen postu hori. Margak, lanpetuegi ipilita nonbait, behin bakarrik hartu du parte eta hortik dator puntu gutxiago bildu izana.

Honenbestez, bere horretan gelditzen zaigu oraingo "Hitzetz hitz" lehiaketa Euskara Kontseiluan lehiaketari bestelako edukia ematea komeni ote den aipatu da, hizkuntzazkoa soilki izan beharrean Hondarribiari buruzko bestelako jakinagariak galdetuta jende gehiagok parte hartuko duela. Horretan saiatuko gaizakizkue, bada.

Dena den, nahiz eta parte hartu ez, bistan da beste askok ere jarraitu dutela lehiaketaren haria, iritsi zaigun ondoko gutuna lekuko:

"Jaun/andre agurgarriok: Gutun honen helburua ez da lehiaketan parte hartzea, bai-

zik eta sugerentzia bat egitea. Hain zuzen, oso interesgarria izango litzateke nere ustez "Hitzetz hitz"-en orriak bildu eta separata edo folleto edo ale berezi batean edo nahi duzen eran argitaratzea, hitz polit honek guziak batean eukitzeko.

Hondarribiko hizkeran ezberdintasun eta berezitasun asko daudela uste dut, alde batek baserriarrak eta bestetik portuarrak. Bi komunitate ezberdin osatzen ez badute ere, denok ez dituzte hitz guztiak ezagutuko eta denontzat probetxagarria izango litzatekeela bilduma hori uste dut.

Beraz, ea zer moduz iruditzen zaizuen ideia hau.

Agur bero bat.

José M. Tallón

* * *

Uste dugu irakurle honen proposamena gogoan hartzeko dela. Baina oraingoz behintzat ez daukagu hori egiterik, Udaltxean bederen ez bait dago horrelako bildumarik. Lehiaketan aipatutakoak gutxiegi izan dira eta horiek ere ez dira inongo zerrendarik atereak, han-hemenka jasoak baizik. Herriko zenbait lagunek izango dituzte, noski, beren zerrendak eta denak bilduz gero itxurazko zer bait egin liteke dudarik gabe. Ea norbait animatzen den, Euskara Kontseiluk bere bi-tartekotza eskaintzen du.

NEKAZARIEN ETORKIZUNA

Badihuri nekazarien etorkizuna beste sektore ekonomiko asko bezala laister batetan aldatu egingo dela edo jadanik aldatzen ari dela. Aldaketak, gaur egungo ekonomiak daraman martxak eraginda omen dira neurri handi batean behintzat, zeren eta orainxe bitarteko produktitzeko erak, -etxeko lain eta pixka bat saltzeko haina gauza eginez- ez bait du balioko hemendik aurrera. Etorkizunak gauza konkretu zenbaitetan espezializatea eskatuko du. Gauza klase bat eginez eta hartatik asko produzitu, indusgintzan eta beste ekonomi arloetan egiten den eran. Horrela dirudi dioaztela gauzak Europako beste tokietan eta ez dut uste, guk, hemen aldatuko ditugunik...

Gauzak horrela, aldaketa hori edo Mendiko Nekazaritzaren egoera aztertu asmoz, elkartu ziren Zestoan joan den hilean Europako 20 herri ezberdinetako ordezkariak edo delegatuak (Europako Nekazaritzako Koonfederakundearen Euromontaña Atala



edo Sekzioa). Erakunde honek 20 herri ezberdinetako 500 enbat kide dauzka eta 20 miloi nekazari europar ordezkatzan. Herrietatik 150enbat izan ziren Zestoan bildu zirenak.


Batzar hau, bi urtetik behin egin ohi da eta Euskadin egin den honetan, mendiko nekazaritzan burutzen den nekazaritza-politika aztertu zen. Besteak beste, Batzorde honek oinarritzko lau helburu markatu zituen. Hots: europako nekazarien interes ekonomiko, sozial eta kulturarako defendatzea; esplotazio familiar independentea, hala nola esplotazioen arteko laguntza mota ezberdin franko defendatzea eta indartzea; europako nekazaritza, munduko jendearen bizitza-egoera, teknika, kultura, la, soziala, etab. hobegaitzea; eta hirietako jendearen eta nekazaritza munduaren arteko elkar-ulertzea sakontzea. Ikusiko duzue, horixe daude helburuak, beraz orain, eman ditzala fruituak, denon beharra izango dugu eta...

J. Bereau

SAN ISIDRO EGUNA GUADALUPEN

Bezperan Joxe Alkiza Zigarrenekoak botatako etxaliero zaratsuek eta goizetik agertu zen eguraldi zoragarriak inoiz baino jende gehiago ekarri zuten Gadalupeko ospakizunetan parte hartzera joan den maiatzaren 15ean. Baserritarrek nagusiki, noski, Kanpaila hotsa, prozesioa San Isidro bizkarrean hartuta, lur bedeinkazioa eta meza eliza baterik zegoela. Ondoren II Jaizkibelgo Gazta Berrien Lehiaketak. Hau bukatutakoan, Lazkao Txiki eta Joxe Lizaso bertsotan gogotik eta Maltzeta soinu jotzen, ordu bitako plakiyak txorabiatu arte.

Baserritarren Hermandadearen bazkarian Rafael Urkola Albisturrenekoa zen maiaburu, 23 urte daramatza Rafaelak Hermandadearen lehendakaritzan. Harekin batean Alfonso Oronoz Alkatea eta On Jose Etxaide Gaudalupeko apaiza ziren. Pertsonaia egokiak karguen aldetik, ohiturari jarraituz, bertsolariak beren lehen bertsotan armak zorrotu eta bazkalondoa giroitzen hasteko. Kontxita Portu eta Manuel Larrarte zinegotziek ere ez zuten huts egin. Joxe Alkizak, Lizaso zuen ezkerrean eta Lazkao Txiki eskuinean. Bai leku txarrean jarri ere, Alkiza gaixoa! bataren eta bestearen tiro gurutzatuen artean harapatu bait zuten eruririk gabe. Apartxeago zegoen Prudentxio Arrietak ere ez zuen erasotik libratzerik izan. Traumak goxatzeko Maltzeta eta bere alaba trikitri batzuk jo zituzten eta azkenean Lazkao Txikiren txisteak entzun genituen, kolore eta hizkuntza guzietakoak, Erriberakoak zirenean hango hizkeraz ematen bait zituen jator asko Joxe Migelek.



Bi Joxe: Alkiza eta Lizaso

Arratsaldean zuhaitz artean jasota zegoen tauladoaren inguruan bildu ginen berriaz ere bertsolari nekagaitzen ziztadak eta soinu joleen doinuak entzuten kirolariak prestatzen ziren bitartean. Batzuekin eta besteekin Prudentxio Arrieta izan zen aurkeztu trebe. Kirol probetan Lete eta Tito aritu ziren aizkoran, lehenbizikoa gertatu zelarik irabazle -- "Lete potente" Arrietaren hitzez --, baina gero Tito han aritu zen 150 kiloko rektangularrarekin eta 100 kiloko zilindrikoarekin. azken hau 15 aldiz bizkareratu zuen jendearen txalo beroen artean, arnasarik hartzeko ere betarik gabe. Trofeo bana eraman zuten biok, bata aizkoran eta besteak harri jasotzen. Bukatzeko, bertsolarien agurra entzun genuen kirolariak gorapatzuz eta ondoren erromeria.

Agur gisa honako bertso hau bota zigun Lizasok:

Oso gutxi izaten dira
holako egun ederrak,
pozak txoratzten azaldu dira
honuntza baserritarrek.
Gaur ez diete kezkanik eman
artuak eta belarrak.
Urte askuan segi holaxe,
Agur guadalupetarrik!

Dena ederki joan zela eta, kamioan behera pozik gertozela, binuragone batean udaluzainen berebela eta atzetik burhercena estuasunezko argiak piztuta gurutzatu genituen. Sua omen zegoen Mikelenea baserrian. Baserraren ondoko aterpe batean hasita, belarra eta pentsu artean zabaldu omen zen sua zazpiak aldean. Bertakoak auzoko batzuek lagunduta hasi omen ziren itzaltzen baina hura ez zela txantxetan ikusita lrungo suhiltzaileei deitu zieten. Bi orduren buruan pasatua zegoen izualdia eta zorionez baserririk berak ez zuen kalterik izan. Tira, bada!



Tito harriasozaile



Lazkao Txiki bertso kantari

II JAIZKIBELGO GAZTA BERRIEN LEHIAKETA



Pablo Miranda, lehen saria

Aurtengo lehiaketa hau bigarrena izan da, Antena-3k antolatutakoa. Lehen saria Pablo Mirandak irabazi zuen, Guadalupe baserrikoa eta igaz bigarren gelditua. Bigarren saria Jose Mari Iginizek breganatu zuen, Kaikubi baserrikoa. Txarloti artzainak plaka bat jaso zuen adin gehienekoa izateagatik. Epaimahaiari Maurizio Urrutikoetxea, Gipuzkoako Sukaldaritza Eskolako zuzendakaria, Antxon Perez Calleja, ekonomista ezaguna eta "Ildazabalgo gazta" deiturikoen lehendakaria, Rafael García DVko gastronomi kritikoa, Ramon Roteta eta Luis Mari Bujanda.

Igaz beranduago egin zen lehiaketa eta aurtun S. Isidrotara aurreratzea proposatzen zen eta halaxe egin da, nahiz eta norbait igandez eta Portuan egitea nahiago zuen. Bestetik, badirudi boikota edo ere izan zitekeela larreak mugatzeko dagoen sistema dela eta protestatzeko, baina azkenean ez da horrela izan.

Javier Tabernak esaten zigunez dedikazio handiagoa lortu behar da gaztaginaren aldetik, kalitatea eta batez ere garbitasuna hobetzeko. Antxon Calleja bera ere prest omen dago ikastaldiren bat edo emateko. Diru sa-

riak ere behar omen dira, orain arte gaztak berak ere ez baitira ordaintzen, dirurik ez dagoelako. Udalak, adibidez, ez du ezer laguntzen. Gutxienez gaztak balio dutena edo gehixeago eman behar litzaieke partaideei, mila duro, adibidez bakoitzeko. Jaizkibelen mila bat ardi daudelarik gaztagileak motibatutik maila hobea lortu daiteke eta.



TXIPIROI BIZIAREN KILIKILIA EZTARRIAN BEHERA

Ohartua eta sinestezalea, ohitura zaharrei atxikia, aberatsa da gure herria eguneroko bizimoduari dagozkion uste eta eta jarduntan.

Juanitok, aspaldiko urteetan betiko atse-denean lo datzan arrantzaleak, ohitura bixi bat zuen: aborinaz harrapatzen zuen lehen txipiroi txikia, bizirik, irestea. Urtero egiten zuen, sasoi honetan, garai honetan txi-biltzen bait dira txipiroi txikiak "praileen hondar-

tza" inguratzen duten arroketara babes bila. Sinetsirik baitzeukan, horrela eginez gero, uda guztian suertea izango zuela lagun eta zuela egun batean ere otarra hutsik etxeratu. Ekintza oso azkarra izaten omen zen, moluskoa itsas sakonetatik arrantzalearen estomakako barrunbe beltzera igarotzen zela apenas konturatu zedin. Deskuido txiki batek oker handia ekarri diezaiokeen. Ez omen da oso atsegina txipiroiaren garroek, txikiak izanik ere, gangailari itxeki eta zintzurra ixtea.

Juanito ugari izan omen ziren, duela hiru hamarkada besterik ez, horrelako ekintzetan sinesten zutenak eta, egun bakar batean, berrehun dozenatik gora zefalopodo ere harrapatzen zituztenak.

Ugariak bait ziren orduan eta denboraldia neurri gorakoa zenean orain entzuten den esaldia alpatzen omen zen: "txipiroi urte, elur urte". Metereologia aldakorri, bizitza eta ondasunen euskarri, arrantzale familetan batez ere, horrelako aztarnen bidez igarri nahi zioten, nahiz eta gaur egun guretzat harrigarrieta erlazigabeak gertatu.

Juanitoren andreak, Joxepak, Jaizubiko "Konke" (Junkera) baserrikoak. Hondarriko jateketan bere tintan serbitzen ziren txipiroiok goxoan prestatzearen fama zuen.

Egun batez, sukaldari nagusi eta etxe-

koandreen errezeta jatorren biltzaile zen Jose Castillo Hermandadara ("Remendadia" portuarrakentzat) hurbildu zen eta formula berexi haren sekretu bat deskubritu zuen. Joxepak, saltsan baino lehen, olio koipetan sartzen zituen. Konbinazio trebea, baserriko eta itsasoko gaiak nahasirik, eta nik gomentatzen dudana. Ez da erraza lortzen olio koipea, baina aukeran dugu antzarakarena, baita potezkoa ere, txit lagungarri ona sukaldaritza.

Garai hartan maiz agertzen zen "Kofradian" (horra beste deitura bat, gaur ere erabilia) Jurgi Oteiza, espazioaren okupagarritasuna demostratu beharrez buru-belarri ari zena. Ardo botila, objektu ukigarria ez-ezik, okupatzen zuen espazioa zen batez ere, okupaketaren bidez sortzen zuen hutsa.

Perikok, erdi edukazioz, erdi burlati, entzuten zituen haren predikatuak, eta egun batean honela esan zion Joxepari: "Gaur gauean txipiroiak jar itzazu afarritako eta Jorgeri "luma" guztiak (txipiroiaren barne-hezur edo maskor kartilagotsua) emaitziaz azpil batean, tintarekin". Ustekabearen ustekabez, orduantxe lehortu zen artista jentilaren bizitasun sutua, sortu ninduenaren erantzun adarjolea jasotzen zuelarik: "Jan ezazu, Jorgeri, lumek inguratzen duten espazioa, eta nik jango ditut txipiroiak".

Juan Jose Lapitz



Txipiroia eta luma

ARTE ETA LITERATUR ALBISTEAK

IDOIA OTEGI KLINGENTHAL-EN LEHENA

Aurreko zenbakian Idolia Otegi Itzas-etxean eskaini zuen kontzertuaren berri emanaz Alemaniara ko zituen asmoak aipatzen genituen. Baita ere, igaz laugarren gelditu zela lehenengoagandik oso puntu gutxitara, eta aurtin, 12 urte dituelarik 12-15 urtekoen kategorian sartzen zenez, aski zaila izango zuela helduagoekin lehiatzea. Horra bada notizia: Idolia aurtin bere mailako lehena izan da Klingenthalgo Nazioarteko Akordeoiari Lehiaketan Bigarrena jugoslaviar bat izan zen eta hirugarrena errusiarra Lau-garrena, beriz, Iraitz Manterola irundarra, Idoliaren taldekidea Lehiaketa maiatzaren 12tik 19ra izan da Zorionak, beraz, Idolia, Miseregoi-ko senide gutxiel, eta zorionak eta eskerrak Karlos Iturraldei eskusoinua goi mailan irakasten ari duen lan ederragatik. Hortxe daude emaitzak.

JOSE MARI ETXABURUK LIBURU BERRIA

Pozarren jaso dugu albistea: Jose Mari Etxaburu "Kamiazpi" liburu berri bat kale-ratu du Auspota liburategian *Neure lau urte-ko ibillerak titulupean*. Auspota liburutegia hasieratik salatu da herri hizkuntzaren altxorra biltzen, bertsoak direla, kontakizunak, autobiografiak, e.a. Horrela Hondarribiko idazle trebeak plazaratu dizkigu behin eta berri: Ataforen Txantxangorri kantaria, Txori, Espetxeke negarrak, Zigorpeane a., Juan Jose Irazustaren Norik bere bidean hiru liburutan, Fernando eta Rafael Artola anaien Arizt beraren adarrak, eta abar. Orain Auspota liburutegia Etor argitaletxearekin bat egina dago eta lehenengo lanari eusten dio, dagoeneko berrehun tituluak gora eskaini dizkigularik, asko eta asko bere jeneroan klasiko bihurtu zaizkigunak.

Jose Mari Etxabururen idatz zaletasuna eta balioa ez dira gauza berria guretzat. Amuten kokatu zen Ondarrutar euskaltzale honek aspalditik argitaratu izan ditu bere lanak hainbat aldizkari eta egunkaritan, baita Euskaltzaindian bere ikerlanak behin baino gehiagotan aurkeztu ere, beti ere herriaren euskara bizia eta garbia landuz eta sakonduz. Gure herrian sustrai sakonak bota zituelarik *Ondarribiko Kondaira* idatzi zuen aspalditxo eta Euskerazaintza-k argitaratu zion duela hiru bat urte Oraingo liburuan 1936tik 1940ra bitarteko gertakariak kontatzen dizkigu mugaren alde bietan ibili zitzaizkigularik. Lana, "Zer" aldizkarian agertu zen zatika 1984-8 urteetan Bihoazkio, bada, Jose Mari gure zorionak eta eskerrak lan berri honengatik, eta irakurleari liburu oso zehin liburutegietan lortzeko aholkua.



REMIGIO MENDIBURU BARTZELONAN OPERATUA

Bartzelonan hiru hilabetez zain egon ondian maiatzaren 4an operatu zuten Remigio Mendiburu hondarribiar prestu eta eskultore ospetsua. Oso ondo joan omen zen 13 orduko ebakuntza luzea.

Operazioa aurrera eramateko ezinbesteko gibelaz gainera hiru odol emaila behar ziren Bat Hondarribikoa izan zen, Juan Pablo Zabala sendagilea, eta beste bi arabarrak: Rafael Garmendia eta Migel Angel Sargarrigai. Dena prest eduki behar zen gibel egokia lortu bezain laster hiru emailaek Bartzelonara eramateko. Horretarako "busca" bat eman zitzaion bakoitzari edozein momentutan non-nahi aurkitu ahal izateko. Javier Altuna ualdizainburuak esaten diguzen Zabalaran "busca" Donostia eta Hondarribiaren zebilenen DYAreña zen, baina Valencia eta Bilboko bilera batzuetara joan behar izan zuenean, Valenciako eta Durangoko ualdizainak arduratu ziren "busca" zerbitzuaz.

Dena antolatua zegoen baina beharrezkoena falta zen: gibelak. Dei bat izan zen maiatzaren 1ean eta orduan Pedro Ortiz ualdizainak eraman zuen Zabala Baina Altasun beste biekien elkaru orduko alferrik zela jakin zuten, gibel hark ez zuela balio Zorionez handik 72 orduara dei berri bat izan zen eta arratsaldeko 4etan sartzen zen Mendiburu Bartzelonako Klinikari Berehala iritsi zen dela Hondarribira eta Gasteiza ere Hondarribik Javier Altuna eta Juanito Ortiz ualdizainek abian eraman zuten Zabala Gasteizko Forondara baina ez zuten 6'25eko hegazkina harrapatzen izan. Beste biek bai, noski. Orduan ertzaintzaren helikoptero batek Sondikara eraman zuen eta 9'45ko hartu zuen han Bartzelonako aireortuan.

Generalitateko Moco de Escuadra talde batek zuzen-zuzen eraman zuen Zabala Klinikara Orduko ebakuntza hamarretan hasia zen eta hurrengo goizeko hamaikak arte iraun zuen Agirira ez da aipatu gibel emaila-aren izenik, horrelako ohiura izaten bait da.

Operazioa ondo joan arren oraindik pazientzia piska bat beharko du Remigio Hondarribira itzuli baino lehen. Guk ere lehenbaiten ikusi nahi dugu geure artean Ea bitartean Diputazioaren laguntzaz aspalditik erabakia dagoen erakusketak zor zaizkion prestakuntza eta kategoriaz antolatzen den Gure eskultoreak hori eta askoz gehiago merezi du eta.

XABIER BUSTOK LEHEN SARIA KONPO-SAKETAN

Igualadako Udalak konposizio lehiaketa bat antolatu zuen parrokiako abesbatzak XXV urteurrena ospatzen zuela eta Nazioak txoko lehiaketa honetan Alemania, Frantzia, Italia, Dinamarka, Ingalaterra eta Ipar Ameriketako berrogei musikagilek hartu dute parte eta lehen saria Xabier Bustok irabazi du beste musikagile europar batekin batean Lehiaketan egile bakoitzak "Ave Maria" eta "Salve Regina" bana aurkeztu behar zuen.

DON MARTIN ITURBE SARITUA

Ekainaren 3an goizeko 11'30etan, eta aldizkaria inprimategian sartuta geneukalarik, Donostiako Doctor Camino bibliotekan Euskerazaintzak antolatutako "Elbire Andereñoa" izeneko lehiaketako sariak banatu ziren, lehiaketa honen bosgarren deialdian Sarluten artean, olerki saillean (haurrentzako olerkiak), Don Martin Iturbe izena ikusi dugu Zorionak, beraz, bihotzez Don Martini, lanean gogotik jarrai dezala opa diogularik, dela helduentzat, dela haurrentzako literaturgintzan.